

txintxarri

Gehienak, txakurrak

Maskotak izan ditu aztergai Saretzen egitasmoaren bosgarren kolpeak; TXINTXARRI-k herrira ekarri du gaia / 2-4

Hamar urte makilen erritmora

Ostadar Ipar Martxa taldeak egun osoko egitarauarekin ospatuko du bere 10. urteurrena / 10

Herrigintza eta komunitatea landu dituzte Borobilean Elkartearen aurreneko saioan / 6

Ostiral honetako saioarekin abiatuko da Ondo ibili egitasmoa; 11:00etan, Okendotik / 7

Mercedes Ramos Calle herritarrak 100 urte bete ditu; aurtengo zortzigarrena da / 8

Gazte Kluba eta Kuadrillategi aisia egitasmoetan izena eman dezakete herritarrek / 9

Maialen Chourraut, garaile Espainiako txapelketan eta Munduko Kopako finalean / 11

Lasrte-Oriako igerilariek ur irekietako denboraldiari agur esan diote / 12

Ez dadila ikasturte berria katramilatu!

ELECTRICIDAD ARREGUI

www.electricidadarregui.com



Lanpara txikia
Gau irakurketarako, kargatzailea



Lapur konektoreak
USB eta entxufe anitz

Bulego lanparak
LED argi erregulatzailerekin


Haur, gazte eta helduentzat



Eskatu whatsapp bidez!

600 85 75 86





Lasarte-Oriak ehun biztanle izango balitu, 11 txakur eta bi katu leudeke, proportzioan. TXINTXARRI/FLOURISH

15 urtetik beherako pertsona ia adina txakur bizi dira Lasarte-Orian

Maskotak izan ditu aztergai Saretzen egitasmoaren bosgarren kolpeak. TXINTXARRI-ko lantaldeak Lasarte-Oriako datuak eta estatistikak aztertu, etxe abereen zenbait jaberren lekukotzak bildu eta txakurrekin lanean ari den Xuhakan elkartearekin elkarlanean aritu da.

Txintxarri

Maskota edo konpainia animaliei etxe abere ere deitzen diegu, gero eta ohikoagoa delako gure bizitokietan txakur, katu, txori, arrain eta bestelakoekin elkarbizitzea, familiako beste kide bat edo batzuk izateraino. Izaki horiengan jarri du fokua Saretzen egitasmoaren bosgarren kolpeak (aurreko lauak demografia, immigrazioa, eguraldia eta banketxeak izan dira). Proiektu hori EITB komunikazio taldeak eta Tokikom tokiko hedabideen bateraguneak aurrera eramaten dute, eta, TXINTXARRI azken eragile horretako kide izanik, aipatu gai hori Lasarte-Oriara ekarri du datu eta estatistika, testigantza eta elkarrizketa bidez.

Lasarteoriatarrek etxeetan dituzten maskota ohikoenak, gainerakoekin alde nabarmenez gainera, txakurrak eta katuak dira: 2.221 eta 289 erregistratuta

daude udalerrian, hurrenez hurren. Bestelako animalia batzuk ere badaudela agerikoa da: arrain, txori eta untxi banaren jabeen lekukotzak jasotzera iritsi da aldizkariko lantaldea.


Hori horrela izanik, erreportajera ekarri dituen zifra eta estatistika guztiek barnebiltzen dituzte txakurrak eta katuak. Horren harira, badaude datu esanguratsu batzuk, esate baterako, 15 urtetik beherako pertsona ia adina txakur bizi direla udalerrian: 2.659 dira gazte txoak eta 2.221 txakurrak. Hurren eta txakurren proportzioarekin antzeko zerbait gertatzen da, izan ere, gure herrian 8,4 daude hamar umeko.

Saretzen egitasmoaren bidez jasotako datuen arabera 19.504 pertsona bizi dira herrian. Proportzioan zenbat txakur eta katu dauden jakiteko, ariketa hipote-


tiko hau egin du: udalerrian ehun pertsona biziko balira, 11 txakur eta bi katu leudeke.

Setter ingelesak, batez ere


Lasarte-Oriako txakurrak zein arrazatakoak diren jakiteko EAEko Animaliak Identifikatzeko Erregistro Orokorrean jo du TXINTXARRI-k. Ohikoena, nabarmen gainera, setter ingelesa da: 279 daude erregistratuta. Hurrengoak dira Yorkshire terrier-a (118), border collie-a (113), bitxon maltarra (88), artzain txakur alemaniarra (72), euskal artzain txakurra (53), labradore retriever-a (52), cocker spaniel ingelesa (50), kanitxea (49) eta boxerra (43). Hamar nabarmenak horiek izanda ere, ehundik gora mota desberdinetako txakur bizi dira gure herrian gaur egun. Bestalde, hamar biztanleko 1,14 txakur daude eta familien ia %18



Hamar umeko 8,4 txakur bizi dira herrian. TXINTXARRI/FLOURISH



15 urtetik beherakoen (%51), txakurren (%43) eta katuen (%6) proportzioa. T/F



Udalerriko txakur arraza ohikoena Setter Ingelesa da. TXINTXARRI/FLOURISH

bizi dira batekin edo gehiagorekin euren etxeetan. Horrez gain, hamar biztanleko 1,14 txakur daude eta familien ia %18k bizi dira batekin edo gehiagorekin.

Katuen kasuan, betiere aipatu erregistro orokorreko datuen arabera, shorthair europarra da ohikoena; arraza horretako 207 katu daude. Hamar ohikoe-

nen zerrenda hauek osatzen dute: pertsua (11); Maine coon (hamar); siamesa eta sphynx-a (seina); forest norvegiarra eta siberiarra (bosna); eta ragdoll-a, shorthair ingelesa eta errusiar urdina (hiru). Bestalde, aipatu behar da zerrenda horretan kodetuak izan ez diren beste 29 katu daudela.



Beauty eta Ari elkarri musuka. O-B SENDIA

OLASAGASTI-BALERDI FAMILIA

Afrikar jatorriko maitasunaren bi txori, bi agaporni ditu etxean Olasagasti-Balardi sendiak. Ohikoa da espezie horretako txoriek kolore biziko lumadi koloretsua izatea, eta isats motzekoak zein moko handikoak izatea. Bi hegaztietatik lehena, 2015. urtean hartu zuten etxean. Haren dotorezia kontuan hartuta erabaki zuten *Beauty* izena jartzea; emea da. Luis Mari eta Conchi gurasoak ez zeuden etxean txoria izatearen erabat alde, baina Jon eta Iñaki semeek euren nahari eutsi eta beraiek erosi eta zaintzearen konpromisoa hartuta ekarri zuten etxera.

Bost urte geroago, 2020an, laguntxo bat ekarri zioten: *Ari*, agaporni arra. *Beauty*-k ez bezala, urdin, zuri eta gris koloreko lumak ditu horrek. Kaiolatik kanpo ere, ibiltzen dira biak, etxean barrera: "Orain ohituta gaude, baina horiek etxean libre, gure artean ikustea berezia eta polita da".

Jonek adierazi du "maitagarriak" direla, elkar musukatzen dutela, eta kaiolatik kanpo daudenean, buru gainean jartzen direla, eta besoan lo ere geratzen direla.

Iñakik, berriz, kontatu du animaliak oso gustuko dituela, eta etxeko hegaztiek lotura erraz egin duela; pentsa zenbaterainokoa, ezen *Beauty*-k berarekin lo egin baitu. Egunero ateratzen ditu kaiolatik, eta bakoitzari urez betetako edalontzi bana jartzen dio, bertan bainutxo bat har dezaten.

Janaria eta ura jartzeaz arduratzen dena Luis Mari da, eta 1.50metroko kaiolaren garbiketa ere berak egiten du: "Beraien kantuekin bizitza alaitzen digute, nahiz eta, batzuetan, telebistaren edo bestelako etxeko soinuekin batera, gehiegizkoa izan daitekeen. Erretiratu naiz, eta konpainia egiten didate". Berak ere, txorien antzera bistatu jotzen duenean, sorbalda gainera joaten zaizkio, eta ezpainera ere urreratzen zaizkie, kantu hori egiten ari den txoriaren bila ariko balira bezala.

Conchik ere behar dutena badutela zaintzen du. Kaiolatik ateratzeaz ere arduratzen da eta berarekin izaten ditu. Kontatu du, gainera, pipak eta mijoa oso gustuko dutela.

Honako adierazpenok ere egin ditu: "Kaiolatik kanpo daudenean, ezin da bistan paperik egon, izan ere, batez ere *Beauty*-k habia egiteko duen senarekin sukalde osoa bete baitezake paper pusketez. Harrigarria da nola mozten dituen".

Orain, gainera, denboraldi baterako etxean katu bat ere badute, eta kontatu dute hor egoten direla txoriak katuari eta katua txoriei begira, bakoitzaren mugimenduak neurtzen.



Iturbe Larrañagarrak, arrainarekin. I-L SENDIA

ITURBE-LARRAÑAGA FAMILIA

"Gure 7 urteko alaba Lidek aspaldidanik nahi du txakur bat etxean; animaliak izugarri gustatzen zaizkio eta horrekin saiatu izan da denbora luzez. Gurasook, ordea, ez gaude animaliak etxean edukitzearen erabat alde. Animaliak gustuko ditugu, baina etxe txiki batean horiek edukitzea ez zaigu ongi iruditzen. Lideri beti ezezkoa eman diogu, eta txakurraren aukera bazter utzita, katuarekin saiatu zen. Guk, ordea, horri ere ezezkoa eman izan diogu. Horrelako animalia bat etxean edukitzea ardua handia iruditzen zaigu.

Orain dela bi urte, herriko festetan, tonbolan, arrain bat egokitu zitzaidan, eta etxera ekarri genuen. Lide poz-pozik. Hori, ordea, jada ez dago gurekin. Sekulako drama sortu zuen haren heriotzako etxean, izan ere, maitasun handia genion. Bere falta sumatu genuen, adibidez, gauetan, egongelan arrainak egiten duen soinua entzuteari utzi genionean. Gauzak horrela, beste bat erostea erabaki genuen; *Kinder Bueno* du izena, eta bera da orain gure etxeko laugarren kidea.

Berekiko (lehenengoarekiko bezainbeste) maitasun handia sentitzen dugu. Ezin daiteke txakur edo katu batekin sor daitekeen harremanarekin alderatu, baina gure etxeko laugarren kidea da eta asko-asko maite dugu.

Zaintzari dagokionez, ardua bat da. Egunero eman behar zaio afaltzen, eta ura astero aldatu behar zaio. Iturriko uretan bizi da, baina ur hori, arraina bertan sartu aurretik, bost edo sei orduz eduki behar da oxigenatzen.

Oporretara joateko ere zaintzaile bat bilatu behar izaten dugu, ezin baitugu denbora luzez arraina etxean bakarrik utzi. Aurtengo oporraldian, adibidez, hogeit egunez ibili gara etxetik kanpo, eta gure lagun Iratik zaindu digu arraina. lazkoan, berriz, amonak. Horrela ibili behar gara, alde horretatik ere ardua bat eskatzen du.

Lidek jarraitzen du katuaren edo txakurraren saiakeran, baina, momentuz honekin geratuko gara. Animaliak asko gustatzen zaizkigu, baina, gure ustez, horiek aske ibili behar dira. Ez pentsa, arraina arrainontzian edukitzeak ere sortzen digu barren kezka".



Amaia, Ander, alabak eta 'Txuki'. C-L SENDIA

CALVO-LASAOSA FAMILIA

Amaia Lasasak kontatu dio TXINTXARRI-ri zer-nolakoa zen *Txuki* izeneko katuarekin duten bizitza. "Ander eta biok elkarrekin bizitzera joan ginenean argi genuen animalia bat nahi nuela etxean. Ez ginen ados jartzen hasieran, nik nahiago nuen txakur bat eta berak horrenbeste lotuko ez gintuen beste maskota bat. Azkenean, katua ekartzea erabaki genuen, asteburuetan-eta kanpora goazenean lasai-lasai geratzen delako etxean, horretarako nahikoa ur eta janari jartzen badiogu".

Calvo-Lasaosa familiak, gainera, euren bizilagunen edota Amaiaeren nahiz Anderren gurasoen laguntza izaten du katu zaintzeko. "Gu oporretara bagoaz, adibidez, bizilagunek zein gurasoek gustura egiten dute zaintza lan hori eta *Txuki*-k, egia esan, asko eskertzen du, baduelako norekin egon eta jolastu. Batzuetan, gainera, bisita bikoitza izaten du!".

Maskotei buruz landutakoa eskura duzue sarean, QR kode hau sakelako telefonoarekin eskaneatuz gero:



Axier Arteaga eta 'Bunny'. AXIER ARTEAGA

AXIER ARTEAGA

"Ez zait gustatzen animaliak toki itxietan izatea eta etxeko belazera ateratzeko barrutik pasa behar denez ezinbestean, untxia ekarri nuen txakurraren ordez, adibidez. Konpainia egiteko oso aproposa zela pentsatu nuen, eta, egia esan, uste dut asmatu dudala. Ez dakit untxi hau berezia ote den ala zer, baina goizero-goizero zain izaten dut atean baita familiarekin kanpoaldean bazkaltzen dugunetan ere. Oso sinpatikoa dela esango nuke".



Asier Sagasti eta 'Denver'. ASIER SAGASTI

ASIER SAGASTI

"Bikoteak eta biok argi geneukan elkarrekin bizitzera joaten ginenean txakurra ekarri nahi genuela, betidanik gustuko izan ditugu eta aukera polita iruditu zitzaigun. Aldaketak sumatu ditugu, baina oso azkar ohitu gara. Egunero hainbat alditan atera behar izatea izan da aldaketa handiena. Edozein plan, opor, egun pasa... antolatzeke baldintzatzen gaitu, ez baititugu erreztasun asko aurkitzen bizitza bere osotasunean txakurrarekin partekatzeke. Hala ere, asmatu dugula uste dugu eta gure familiako ezinbesteko kide bihurtu da".

Berrorekatu

Berreskuratu

Birsortu

IKASTURTE
BERRIA
AZALA
BERRITUA

Aurpegi eta gorputzeko tratamenduak

ESTETIKA ARETOA

Ehunen birsartzea eta giharren indartzea tratamendu bakarrean

Uistin Kalea z/g • Tel. 943-37 08 45 • Lasarte-Oria



"Jabearen gisakoa bilakatzen da txakurra"

JUAN MARI ENCINAS GIL ETA ANA LOPEZ POLAINA XUHAKAN ELKARTEKO KIDEAK 2017an eraturako elkarteko bi hezitzaileak dira herritarrak. Oinarrizko trebaketaz gain, Erabilgarritasunezko Kirol Mendetasuna (EKM) diziplina ere lantzen dute

Maitane Aldanondo

Txakurrekiko zaletasunak eraman zuen Juan Mari Encinas Gil Xuhakan Txakur Taldea sortzera. Txakurra ondo hezteak eta animalia gisa tratatzeak duen garrantziaz hitz egin du TXINTXARRI berarekin eta Ana Lopez Polaina kidearekin.

Zergatik sortu zenuen Xuhakan?

Juan Encinas: Txakurrak izugarri gustatzen zaizkit haurra nintzenetik, baina gurasoen etxean dortoka besterik ez nuen lortu (kar, kar). Handik Lizartzako baserri batera bizitzera joan nintzenez, lehen txakurra izan nuen. Gauzak egiteko gustatzen zaizkit, lanerako animaliak baitira, eta berarekin entrenatzen nuen. Ikastaroak egiten hasi nintzen ere, nire txakurra ondo hezi nuen jakiteko, eta gustua hartzen joan nintzaion. Txakurrekin eta gidekin aritzea lagungarri zait, nire ihesbidea da.

Zer jarduera egiten dituzue?

J. E.: Oinarrizko mendetasuna, gidetik txakurrekin dituzten arazoak aurre egiteko: deitu eta ez etortzea, uhalari tira egitea... Baihemen (Apaor kaleko gunean), bai kalean entrenatzen dugu eta egunerokorako oso baliagarria da. Hori egiten zutenek zerbait gehiago eskatzen zidatenez, Erabilgarritasunezko Kirol Mendetasuna (EKM) ere lantzeari ekin



Ana Lopez Polaina eta Juan Mari Encinas Gil, Xuhakan Elkartearen eremuan. TXINTXARRI

genion eta 2019tik diziplina horretan lehiatzen gara.

Ana Lopez Polaina: Gidaren eta txakurraren arteko harremanean oinarritutako kirola da.

J. E.: Bai, baina ariketak kalean topa ditzaketek egoerak dira: haurrak baloiarekin jolasean, pilota botatzen... Agindu ezean, ezin duela joan irakasten diogu.

Beraz, irakastea oinarritzakoa da.

A. L.: Kumea denetik ez badizkiozu arauak ezartzen, arazoa gerora etorriko da. Eman eta eman egiten badiozu, eskatu egingo dizu; zuk tratatu duzun moduan jokatzeko baitu. Maite

duzulako zure etxeko txakurra dena utzi eta ematen badiozu, etxearan jabe bilakatuko da.

J. E.: Animalia hierarkikoak dira eta beti goian egon nahi dute. Haurren moduan, sokari tira egiten diote gauzak lortzeko, baina irabazi egin behar dituzte.

A. L.: Ezjakintasuna da, txakur bat izateak zer ekar diezazukeen ez jakitea. Nahi duena egiten uzten badiozu, mugak jartzean edo heltzean arazo asko datoz.

J. E.: Aspaldi entzun nuen txakurra trebatzen hasi behar dugula kumea izan baino sei hilabete lehenago, ordutik pentsatu

beharko genukeelako berarekin zer egingo dugun, zer utziko dugun eta zer ez... Kontua ez da dena debekatzea, gauzak egin ditzake; baina zenbait ez.

Zaila al da txakur bat hezteak?

A. L.: Kasu bakoitza berezia da, baina nire ustez ez dago hezi ezin den txakurrik, oso muturreko kasua izan behar du, baina pazientzia handia eta konstantzia behar dira. Batzuekin errazagoa da, eta ez da gauza bera kumea denetik hezteak edo mendekotasunik izan ez duen heldu bat, hori gehiago kostatu daiteke.

J. E.: Erantzukizun oso handia da. Albaitariarenera eraman, jaten eman, ura, egunean bizpahiru aldiz ateratu behar duzu paseora, paseo aberasgarria izan behar da txakurrarentzat...

A. L.: Txakurra izaten utzi behar diozu. Usaindu, behar duena egin, batetik bestera ibili... Baina aldi berean, lan egiten ikasi behar du eta obediencia oinarriak izan behar ditu. Hala, arazo bat egon daitekeela ikusiz gero, badakizu txakurrak kasu egingo dizula.

Gero eta txakur gehiago daude, hiriguneak moldatu al dira horri erantzuteko?

J. E.: Historiaurrean jarraitzen dugu. Herriko zenbait gunetan txakurrak aska daitezke, ordu-tegiaren arabera... Nire ustez, hiru gune zehaztu beharko lirarteke eta ondo atondu, hau da: hesi bat jarri, argiteria, iturria eta zaborrontziak kaka poltsak botatzeko. Ez da gehiegi eskatzea.

Txakurrak gizatiartzeko joera ere badago. Nola eragiten die?

J. E.: Arropak, orga... Ibiltzeko arazorik ez duen txakurra organ paseatzea...

A. L.: Ez dakigu zer daukagun. eta arazoa izan daiteke jabeek ulertaraztea badirela zenbait gauza ez litzuketanak egin behar.

Adibidez, txakurrei ez zaie gustatzen besarkatua izatea.

J. E.: Gure beharrak asebetenahi ditugu txakurraren bidez. Zerbait besarkatu nahi baduzu, erosi peluxe bat eta eman nahi beste muxu eta besarkada; txakurra errespetatu egin behar da. **Azaldutakoa azalduta, zer hartu beharko litzateke kontuan txakurra aukeratzeko?**

A. L.: Askotan moden arabera jokatzeko da eta uste dut test bat egin beharko litzatekeela, jende askok berarentzat egokia ez den txakur bat baitu. Bizimoduaren eta berarekin egingo dutenaren arabera, aditu batek nahi duten txakurra egokia den esatea edo aproposa zein den azaltzea.

Alegia, gutxieneko ezagutza izan erabaki aurretik.

A. L.: Jabearen gisakoa bilakatzen da txakurra. Aktibo bazara, berarekin lan egitea gustatzen bazaizu, emozioak desberdinak dira. Lotura hori gizakiaren arabera da. Artzain txakur alemaniarra izan dezakezu, baina behar duena ematen ez badiozu, kalte egingo diozu. Lanerako txakurra da, ez etxean egoteko.

J. E.: Hori ezin zaio kendu; bere sena hiltzen baduzu, zoratu egiten da. Aktibitatea behar du. Usaimen lana da txakurrak gehien nekatzeko dituen. Jabe askok ez daki hori eta dakienak maiz ez du egiten.

A. L.: Kontzientzia hartzea beharrezkoa da, daukazuna zer den jabetzea. Kalean askotan ikusten duzu jabeek ez dietela jaramonik egiten, sakelakoari begira doaz...

**LOPEZ POLAINA:
"BAKOITZA BEREZIA DA, BAINA, NIRE USTEZ, EZ DAGO HEZI EZIN DEN TXAKURRIK"**

V. EKM txapelketa hilaren 21ean

Xuhakan Txakur Elkarteak antolatutako V. Erabilgarritasunezko Kirol Mendetasun txapelketa jokatu zuten pasa den asteburuan Bugati erretegiaren ondoan duten gunean. 40 bat binomio –gida eta txakurra– lehiatu ziren mailaren arabera, lau kategoriatan banatuta. Eskatutako egiten txakurrak eta jabeak izandako trebezia kontuan hartu zuten epaileek.



Epaileek eskatutakoa eginarazi behar dio gidak txakurrari. TXINTXARRI



Partaideez gain, zenbait ikusle ere bertaratu ziren txapelketa. TXINTXARRI



Gero eta etxebizitza gehiago eraikitzen ari dira Zatarain auzoan. TXINTXARRI

Zataraingo zozketak ezinegona eragin du

Babes Ofizialeko 64 etxebizitza zozkatu dituzte 1.310 pertsonaren artean. Erabilitako prozedimenduak harrabotsa eragin du kultur etxera bertaratu direnen artean. Lasarte-Oriako Udalak adierazi du ez duela gertatutakoarekin zerikusirik izan

Iñigo Gonzalez Sarobe

"Kultur etxera sartu eta mahai bat ikusi nuenean eszenatoki erdian, tela gorri batekin estalita... Santa Anako parodia gogorarazi zidan, eta gerokoak ere bai: prozedura une batetik bestera aldatu, bolak nahasteko bonboa apurru, bolak lurrera erori..." Iñigo Otaegiren hitzak dira, hilaren 17ko zozketara bertaratu ziren perso-

netako batenak. 1.310ek izena eman zuten eta 500 joan ziren ekitaldira. Sukia enpresako hiru ordezkari, notario bat eta Agustin Valdivia alkatea arduratu ziren zozketa egiteaz. Mugikortasun murriztua duten pertsonen bideratutako lau etxebizitza zozkatu zituzten aurrera, hamar pertsonaren artean. Ondoren, beste 60ak. Orduan, eserlekutik altxa eta hitza hartzea

erabaki zuen Otaegik, prozedurarekin zalantzak zituelako, batetik, eta erdara hutsean ari zirelako, bestetik. "Esan ziguten milakoaren zenbakia aterako zutela lehenengo, 0 edo 1. Bat edo bestea ateratzeko probabilitatea berbera da, %50, baina 1.310 pertsona ginenez, milako zenbakia 1 izanez gero 300 pertsona horiek gainerakoek baino hiru aldiz aukera gehiago zi-

tuzten". Sistema hori ez zuten hasi aurretik azaldu eta dokumentatu; ez idatziz, ez grabatuta.

Otaegiren iradokizuna entzun eta gero sistemaz aldatzea erabaki zuten mahaikoek, momentuan bertan. "Ehuneko zenbakia atera zuten lehenengo, bonboan hamahiru bola sartuta. Berriz ere arazoak egongo lirateke 13 zenbakia atera izan balitz eta ez zuten azaldu zer egingo zuten hala izanez gero, baina, 9a atera zuten, aurrera jarraitu zuten". Ondoren atera zituzten hamarrek zenbakia eta banako zenbakia, hiru zifrako zenbaki bat osatu arte: 965. Zenbaki hori zuen pertsonari eta hurrengo 59ei egokitu zaizkie aipatu etxebizitzak.

Legea eta justizia

Zozketarekin segi ahala ugaritu ziren jendearen marmarrak, herritarrak gogoratu duenez. Horiek entzutean, Sukiako arduradunek esan zuten legezkoa zela prozedura, notarioak sinatuko zuelako. "Legala izango da, bale, baina justua al da sistema hori? Kultur etxearen aurretik zenbat zozketa egin ote ditu Sukiak? Nik uste akatsaz jabetu ziren eta erantzukizuna notarioaren gainean jarri nahi izan zuten". Laburbilduz, Otaegik uste du "inkompetentzia" erakutsi zutela mahai horretan eseri zirenek zozketa aurrera eramaterakoan. "Duten ardura kontuan izanda, lotsagarria iruditzen zait orain arte ez konturatu izana". Maider Galardi eta Intza Alkain lasarteoriatarrek eman dute gertatutakoaren berri prentsan eta irratan, hurrenez hurren. Lehenengoak hilaren 19an argitaratu zuen *Eskubideak loterian* izenburudun iritzi zutabea *Berria* egunkarian. Bigarrenak, berriz, *Dida! Gaztea* irra-

tsaioan zazpi minutuko tartea eskaini zion afera horri.

Lasarte-Oriako Udalarekin harremanetan jarri da TXINTXARRI, gertatutakoaren bueltan galdeztzeko. Erantzun dio erakunde horrek "zerikusirik ez" duela izan zozketan eta prozesuan: "Sukia Eraikuntzak enpresaren etxebizitza pribatuak dira, Babes Ofizialeko etxebizitzak egin nahi zituzten eta udalari eskatu zioten zozketa egiteko lekua. Auditorioa eskaini zien baina erreserba Sukiak ordaindu du, haiek eskatu zutelako". Zerrendekin ere, antzera: "Zozketako zerrendak Etxebidek kudeatu ditu, eta, beraz, udalak ez du zerikusirik horien kudeaketan".

Alkatea zozketara joan zen Sukiakoek hala eskatu ziotelako, etxebizitza horiek udalerrian eraiki dituelako. Azkenik, jakinarazi du "kexa batzuk" jaso dituztela, herritarrek alkatea ekitaldian ikusi zutelako eta etxebizitzak Lasarte-Oriako lurretan daudelako. Sukiarekin ere kontaktuan jarri da aldizkaria baina oraingoz ez du erantzunik jaso.

Prentsan eta irratan



Eskubideak loterian



Dida!-ko tartea

Erakusketa eta ibilaldia, udala beraietaz gogora dadin

Clasicos Lasarte-Oria eragileak aldarrikapen ekimen horiek aurrera eramango ditu urriaren 6an, igandearekin

Txintxarri

Ibilgailu klasikoei ematen zien hobaria ezabatzea erabaki zuen Lasarte-Oriako Udalak eta mota horretako automobilen jabeek haserre jarraitzen dute. Clasicos Lasarte-Oria eragilea sortu zuten

egoera hori gizarteratu eta protesta egiteko asmoz eta talde hori osatzen dutenek iragarri dute ekimen bat aurrera eramango dutela urriaren 6an, igandearekin, erakunde beraietaz gogora dadin.

Gauzak horrela, Hipodromoan elkartuko dira 11:00etan eta auto klasikoak erakutsiko dituzte bertako aparkalekuan, ordubetez. Ondoren, motorrak piztu eta ibilaldi bat egingo dute herritik.

Martxo eta apirilean, esaterako, ibilaldi eta sinadura bilketa bana egin zituzten Okendo plazan. Antolatzaileen ustez, udalaren erabakia "erabat inkoherentea" da "automobilismo klasikoaren sorlekua izateaz harro dagoen herrian", ibilgailuen mantentzea garestia baita.



Apirileko protesta ekitaldiarekin batera ibilaldia egin zuten. TXINTXARRI

Herria eraikitze gakoak partekatu dituzte

Boroblean Elkarteko kideek ikasturte berriko lehen mahai ingurua aurrera eraman dute, Joxemi Zumalabe fundazioko lagunak gonbidatuta. Herri mugimenduen ezaugarriak landu dituzte aurrena eta taldetxotan bildu gero, ideiak elkarbanatzeko

Txintxarri

Neurri batean, hilaren 24koa lehen eskola eguna izan zen Boroblean Elkarteko zein Joxemi Zumalabe fundazioko kideentzat. Lehen eskola egun hori, gainera, ikastetxe bateko musika gelan izan zen, Oriarte Landaberri eraikinekoan. Nerbiozo zeudela onartu zuten ikasturte berriko lehen borobileko antolatzaileek eta gonbidatuek. Borobileanoak, ez zekitelako iaz erdietsitako arrakastari eta interesari eutsiko zioten; Joxemi Zumalabeko Iker eta Unaiek, ez zekitelako atzoko mahai inguruaren aurkezpenean beraiekiko sortutako espektatibak beteko zituzten ala ez: "Urduri gu jarri gara orain, ezingo genituzkeelako gure buruak hobeto aurkeztu", esan zuten, Ixiar Arteaga moderatzailearen aurkezpen bikaina eskertzeko. Gainera, kurtso honetako jendaurreko lehen saioa da guretzat". Solasaldiaren martxa zer-nolakoa izan zen ikusita, batzuk zein besteak



Joxemi Zumalabe fundazioko lagunekin osatu dute lehen borobila. TXINTXARRI

lasai asko egon daitezke: Borobleanekoak, 19:00ak baino lehen jarri zituzten aulki guztiak (eta gehiago) bete zituztelako; Joxemi Zumalabekoak, ordu eta erdiko saio interesgarri eta dinamikoa aurrera eraman zutelako.

Herriarrak, elkarteak, komunitatea... Elkarrekin herri bat eraikitzen! izenburupean egin zuten atzoko saioa. Horretan adituak bainoago, "arituak" direla esan zuten Ikerrek eta Unaiek. Euskal Herrian bestelako jendar-

te eredu batzuen alde lanean herri mugimenduei laguntzen diete. Honela definitu zituzten atzo: "Autonomoki antolatzen diren herritar taldeak dira, amankomunean dituzten kezka eta gogoak asetzeko helburu dutenak. Aldaketa politikoak egin eta komunitateak trinkotzerakoan gakoak dira". Gisa horretako azalpenak eman zituzten solasaldiaren aurreneko zatian.

Hemezortzi eragile

Horren aurretik, elkar ezagutu eta "Lasarte-Oriako elkarlanaren lehen mapa" marraztu zuten, parean zituzten dozenaka herritarrei euren izenak eta norbanako edo eragileren baten ordezkari gisa bertaratu ziren zehazteko eskatuta. Unai hartu zuen post-it laranja batzuk hartu eta elkarte bakoitzaren izenak arbelean itsasteko ardura eta bota zuen izerdi pixka bat, udalerriko hemezortzi kolektibotako kideak bertaratu baitziren: Sorgin Jaiak, Ihitten elkarte, Ttakun Kultur Elkarte, Enai, Lasarte-Oriako Gazte Asanblada, Kukuka eskola, Irakurle Txokoa, Zabaleta Auzolan, Xumela korua, Errigorra egitasmoa, Bizipoza elkarte, LOOPA plataforma, Sare Herriarra, Buruntzaldeko Transmaribolloak, Islada Ezkutatuak, LAB sindikatuak, Landaberri Guraso Elkarte eta Boroblean Elkarte bera, jakina.

Atzoko borobilaren helburu nagusia izan zen Lasarte-Orian

gaur egun dagoen elkarlanaren diagnostikoa egitea eta norabide horretan etorkizunean egin beharrekoa irudikatzea. Fundazioko kideen iritziz, elkarlana "aberasgarria" da komunitatea eta herria eraikitze laguntzen duen neurrian: "Herritarren elkar ezagutza eta kohesioa bultzatzen dituztenez, eragin positiboa du". Halaber, nabarmendu zuten partaideen arteko hartu-eman dela "bentako elkarlana", hau da, mugimendu bat eratzerakoan kide guztien gogo eta nahiak kontuan izatea, ez batzuenak gailentzea.

1996tik lanean

Joxemi Zumalabe fundazioa 1996ko apirilaren eratu zuten eraldaketa sozialean ari diren herri mugimenduak aitortu eta lan egiteko kultura hori indartzeko. Geroztik, makina bat lanketa burutu dituzte hamaika eragiletako kideekin, sinergia eta ahalduntze prozesuak aurrera eramanda. Arteagak hiru nabarmendu zituen atzo: Laxita gaztetxean jazotako eraso matxisten aurkako protokoloa, Bilboko mugimendu euskaltzalea biziberritzea eta Lekeitioko Andra Etxea ametsa izatetik proiektu izatera arte egindako prozesua.

Boroblean Elkartekoek urrian egingo dute hurrengo mahai ingurua, kultura aniztasunari buruz. Hernaniko Amher elkarteko, Zarauzko Zaraueta ikastetxeke eta Zaldibiako esperientzietan aditu diren kideak gonbidatuko dituzte.

Keinu txikien bitartez komunitatea egiteko kanpaina

Caritas Gipuzkoak, Aterpea merkatarien elkartearekin elkarlanean kanpaina bat abiatu du

Txintxarri

Kanpaina honen helburuak dira kalean presente egotea eta herritarrek sentsibilizatzea, eguneroko jarrerak pertsona guztiarentzat gizarte abegikorragoa eraikitze duen garrantzia azpimarratzearekin batera. "Irribarre bat, 'egun on' bat, atea behar duen norbaiti heltzea, pertsona guztiei berdinetik berdinerara begiratzea jatorria edozein dela ere, edo baztertze egoeran zein arriskuan daudenak ez aurre juzgatzea edo kriminalizatzea guztion eskura dauden jarrera batzuk dira, eta

gure herri eta hiriak lagunkoia-goak eta inklusiboagoak izaten laguntzen dute", hala adierazi du ekimenaren Caritas Gipuzkoak aldizkarira bidalitako prentsa ohar batean.

Keinu txikiek ere komunitatea egiten dute kanpaina herritarrek s e n t s i b i l i z a t z e k o xedearen barruan kokatzen da, eta kalean izango da Lasarte-Oriako Aterpea elkarteko hogeita hamar bat saltokiri esker (Azpeitiko Bertan elkartekoek ere egitasmoarekin bat egin dute). Horien guztien erakuslehoetan kanpainaren afixa jarriko dute,

eta, horrekin batera, pertsona guztiarentzat aukerak dituen gizarte bat eraikitze gongonbidatzen duen mezua ere bai. Gainera, nahi duenak Caritas Gipuzkoaren jarduerari ekarpena egin diezaike borondatezko dohaintza baten bidez, eta horren truke, Alzola Basque Waterrek kanpaina honetarako emandako ur botilatxo bat jasoko du. Eki-ena martxan da, eta hilaren 29ra bitartean egongo da indarrean. Lasarte-Oriako merkatariekin batera, Azpeitikoek ere parte hartuko dutela jakinarazi dute.

Gipuzkoako Caritas

Caritas Gipuzkoa irabazi asmorik gabeko erakundea da, hirugarren sektore sozialaren esparruan lan egiten duena. Pertsonen garapen integrala



Buenetxea taberna da kanpainarekin bat egin duen establezimenduetako bat. TXI

lantzen eta sustatzen du eta, aldi berean, gizarte sentsibilizatzen du, bidegabekeriak salatuz mundu justuago bat eraikitze. Askotariko errealitateekin lan egiten du, hala nola etxerik gabeko pertsonekin,

migratzaileekin, pobrezia edota bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden emakume eta familiekin.

Caritas Gipuzkoaren jardueran boluntarioen lana funtsezko zutabea da.



Maialen Chourraut kiroldegi aurrean aurkeztu dute aurten Ondo ibili egitasmoa. TXINTXARRI

Ongizatearen eta jasangarritasunaren alde

Ikasturte berriarekin batera hasiko dira herriko nagusientzako Ondo ibili saioak. Mugikortasun astearen barruan egingo dute lehena, ostiral honetan, hilak 27. Okendo plazatik abiatuko dira, eta amaitu ostean, hamaiketako eder bat egingo dute

Txintxarri

Ondo ibili egitasmoaren aurkezpena egin du Lasarte-Oriako Udalak. Helduentzako ibilaldi saioak dira, astean behin, ostiraletan, aurrera eramango dituztenak, eta horren gaineko xehetasunak eman ditu Kirol zinegotzi Goizalde Pildainek. Azpimarratu du saio horiek "osasuna eta ongizatea" direla bertan parte hartzen dutenentzat, eta horrez gain, herritarrak elkar ezagutu eta adiskidetasun berriak egiteko aukera ere eskaintzen dutela.

Arestian esan bezala, Mugikortasunaren astearen barruan aurrera eramango dute lehen saioa; hilaren 27an izango da hori, 11:00etan Okendo plazatik abiatuta. Horren ostean etorriko dira gainerakoak. Ostiraletan izango dira horiek ere, ordu eta leku berean.

Ibilbideei dagokionez, Pildainek azaldu du aukera bat baino gehiago egongo direla eta parte hartzaile bakoitzak, bere egoeraren arabera parte hartu

XVIII. Mugikortasun Astearen murgilduta daude herritarrak

Europako mugikortasun astearekin bat egin du aurten ere Lasarte-Oriak; XVIII. aldia aurrera eramaten ari da asteotan, eta horretarako, askotariko jardueratan parte hartzen ari dira lasarteoriatarak. Hilaren 20an, ostiralarekin, Manttangorri hiribusak doako zerbitzua eman zuen, eta hilaren 23an, berriz, txiringak konpontzeko tailer batean parte hartu zuten.

Gaurko, aldiz, hauek dira iragarri dituzten ekimenak:

11:00etan, Ondo ibili taldea abiatuko da Okendo plazatik.

16:30etik 20:00etara, bizikleten bigarren eskuko azoka, Okendo plazan.

17:00etatik 19:30era, jolasak Okendo plazan eta inguruan.

17:00etatik 19:00etara, Gurpil kameren gaineko berrerabileraren tailerra.

17:00etan, bizikleta martxa Okendotik.

18:30ean, Ostadar SKTren laguntzarekin, ipar martxa saioa Okendo plazatik.

ahal izango duela batean edo bestean.

Eguraldi txarra eginez gero, kaleko saioak Biyak Bat egoitzara lekualdatuko direla ere ohartarazi du; bertan batuko

dira partaideak eta hor egingo dute eguneko saioa. Hori azalduta eskerrak eman dizkio zaharren egoitzari espazio horren erabilera ahalbidetzeagatik.



Udal ordezkariak parte hartze prozesu berriaren berri ematen. TXINTXARRI

Inauterietako gaia aukeratzeko parte hartze prozesua, martxan

Egunotan abiatu du udalak Inauterietako gaia aukeratzeko parte hartze prozesu berriua; bi fase izango ditu

Txintxarri

Hilabete batzuk geratzen dira oraindik Inauterietan murgiltzeko, baina horiek garaiz eta gonoraz prestatzeko asmoz, mozorrorako gaiak proposatzeko parte hartze prozesua abiatu du udalak egunotan. Hala jakinarazi du Agustin Valdivia alkateak, Jaiak saileko zinegotzi Txus Alonsok eta Parte Hartze saileko batzordeburu Nagore Duranek. Hasteko eta behin, aurtengo prozesuak izango duen berrikuntza berri eman du Duranek. Esan du bi fasetan banatuko dela. Abiatzearekin batera, herritarrek proposamenak egin eta udalari helaraziko dizkiote. Horretarako hilaren 23tik urriaren 6ra arteko epea izango dute. Etxeko postontzietan jasotako eskuorriaren bidez eman ahalko dituzte iritziak. Horiek udalaren parte hartze postontzietan (Emakumeen Zentroa, kultur etxea, Gaztelekua, udaletxeako arkupe zaharrak edo kiroldegia) utzi beharko dituzte gero. Sarean egiteko aukera ere

izango dute lasarteoriatarrek, epealdi berean, udalaren web atariaren bidez.

Proposamenak egiteko epea amaituta, jasotako iritziak Inauterietan parte hartzen duten konpartsei jakinaraziko dizkiete, eta horiek arduratuko dira guztien arteko bost aukeratzear. Hala, atzera berriz bost horiek herritarrei jakinaraziko zaizkie, eta berriz ere bost horien artean bat aukeratzeko parte hartze prozesuaren bigarren fasea zabalduko da. Gauzak horrela, urriaren 21etik azaroaren 3ra arteko epealdia zabalduko du udalak bigarren fase horretako iritziak jasotzeko, eta, data hori iragarri iragarriko dute mozorrorako gaia izango dena, azaroaren 6an. Udal ordezkariak ohartarazi dute gai batekin baino gehiagorekin berdinketa gertatuz gero, konpartsekin erabakiko dela gaia.

Hitzartzea amaitzeko herritarrak iritziak ematera gonbidatu dituzte.

LOOPAkoen ekimena

Lasarte-Oriako Osasun Publikoaren Aldeko plataformak (LOOPA) iragarri du kexa formal bat aurkeztuko duela Arartekoaren Bulegoan. Aurreratu dute hilabeteotan bildu dituzten herritarren 1.500 sinaduratik gora ere eramango dituztela bertara.

Kexa publikoki bidaliko dute eta horretarako ordu laurdeneko kontzentrazioa egingo dute datorren astelehenean, hilak 30, Okendo plazan, 11:30ean. Ondoren, komunikatu bat irakurri eta Correosek Geltoki kalean duen bulegora joango dira, manifestazioan. Plataformako kideek herritarrak animatu dituzte aipatu ekimen horrekin bat egin eta parte hartzera.

Mendebetea osatu du Mercedes Ramos Callek

Duela 50 urtetik Lasarte-Orian bizi den herritar horrek 100 urte bete ditu eta senideen zein udal ordezkarien bisita jaso du gaur egun bizitoki duen Atsobakar egoitzan. Haiekin eta gainerako egoiliarrekin ospatu du urtebetetze berezi hori

Maitane Aldanondo

Cacereseko Pional herrian jaio zen Mercedes Ramos Calle 1924ko irailaren 21ean. Bertan ezkondu eta lau seme-alaba izan zituen, Juan, Luis, Maria Angeles eta Belen Merchan, eta 50 urte zituela Lasarte-Oria etorri ziren. Beste asko bezala, lehenik senarra lekualdatu zen bizimodu oparago bat izan nahian, eta egonkortu zenean, han zituzten lur batzuk saldu, etxebizitza erosi eta familia herrian elkartu zen. "Bizitza erdia darama hemen", nabarmendu zuen Maria Angelesek, amari buruzko beste xehetasun batzuen artean.

Seme-alabak alboan izan zituen hilaren 21eko ospakizunean, baita ilobetako batzuk eta irribarre bakarrenetako atera zion Nora biloba. Denek egon nahi izan zuten bere alboan Atsobakar egoitzan egin zioten festa xumean. Eguneko zentroa etortzen hasi zen eta 2018tik egoitza du bizitoki. Zaintzailuetako batek euskara eta gaztelania uzartzen zituen bertso bat abestu zion, urduritasun eta zirrara nahasketa batek utzi zion bezain ondoen. Amaitzean, markoan jarrita oparitu zion, egun berezi horren oroigarri. Ez da jaso zuen opari



Mercedes Ramos Calle, senideekin eta egoitzako langileekin. TXINTXARRI

bakarra izan, Agustin Valdivia alkateak eta Nuria Fernandez zinegotziak arrosa sorta bat eramane baitzioten.

Argazki ugari egin bazizkieten ere, lasai zirudien. Are gehiago, lo gelditu zen zenbait unetan. "Ile apaindegian egon da eta goxo dago orain". Alboan zuen bere ilobetako batek laztanak egin zizkion eta horrek esnatu zuen behin baino gehiagotan. "Harreman berezia izan dute beti", azaldu zuen alabak. Oro har, Ramos osasunez ondo dago. "Nahiko gorra dago, audifonoe-

tako bat galdu du, gainera; baina ez du minik eta ondo dago".

Kandela itzalita, hamaiketako egin zuen gainerako egoiliarrekin, bizkotxo zati bana eta txokolate irabiatua banatuta. Gozo zalea izan ez bazen ere, adinarekin joera aldatu duela ere kontatu dute, eta antza, ez da bakarra. Bazkaldu ondorengo siestatik esnatzean, elkarte batean askaria egin zuen familiarekin, eguna Atsobakarren amaitu aurretik.

Mercedesez gain, beste zazpi herritarrek bete dituzte 100 urte aruten.

Erdi Aroko giroz jantzita

Erdi Aroko Xacobeo azokaren zortzigarren aldia aurrera eramane zuten hilaren 20tik 22ra, erdigunean. Kale Nagusian eta Okendo zein Elizatze plazetan eskaintza zabala izan zuten hiru egun horietan merkatura bertaratu zirenek. Eguraldia uste baino hobea izan zen eta baita feriako giroa ere, beraz, espero baino jende gehiago joan zen.



TXINTXARRI



NEURE KABUZ
LIERNI REKONDO

Hitz prefabrikatuak

Jar zaitetz haurtzarora begira eta pausatu itzazu begiak ikasgelan. Demagun, taldeko liderra (mutila kasualitatez) zugana hurbiltzen dela, harrokeriaz, mespretxuz.

Ohartzetako zure espazioa inbaditu du, iletik tira egin dizu eta pasadaz ipurdia ukitu. Kexatu egin zara, baina berak barre. Irakaslea kontu eske etortzean, "zer? Nik ez dut ezer egin!" bota du ahots goran, bularra ateraz, handiustez, besoak zabal zabal eginda.

Tutoreak halabeharrez interpelatu ondoren, gogo txarrez etorri zaizu berriz ere eta "barkatu, ez dut berriro egingo" esan dizu begietara begiratu gabe. Barruak su hartu dizu, minez, amorruez... badakizulako hitz prefabrikatu horien atzean keinu harroputz bat ezkutatzeko dela, botere izpi bat. Badakizulako ez dela gertatuko den azken aldia.

Sardui jauna, zure hankasartzea hitz prefabrikatuekin konpondu dezakezula uste baduzu, zalantzan jarri duzun parekidetasun falta berresten ari zara.



TXINTXARRI

Erketz eta Makaia, dantzari

Erketz Euskal Dantza Taldeak berreskuratu egingo du Dantzari Eguna, zenbait urteko etenaldiaren ostean. Iragarri du bihar (hilak 28) ospatuko duela, larunbatarekin, eta ez bakarrik: Faltzeko (Nafarroa) Makaia gonbidatuko du.

Kalejira batekin ekingo diote ospakizunari, 17:30ean, Okendo plazatik abiatuta. Erdigunean barrena ibili eta enparantza horretara itzuliko dira emanaldi nagusia egiteko, 18:00etan. Eguraldi txarra eginez gero, kultur etxeko auditorioan dantzatuko dute.

Azken Ostirala egitasmoari berrekingo diote

Sare Herritarra eragileko kideek jakinarazi dute ikasturte berria hastearekin batera hasiko direla Azken Ostirala aurrera eramane berriz ere. Gauzak horrela, Elizatze plazan elkartuko dira bihar (hilak 27), 20:00etan, bertatik manifestazioan abiatu, erdigunea zeharkatu eta Oken-

do enparantzan ekintza bukatzeko.

Jarduera horren bidez euskal preso, iheslari eta deportatuen eskubideak aldarrikatzen eta defendatzen dituzte udalerriko kaleetan, hilabete bakoitzeko azken ostiralean. Ondoren, Oken-dora iristean, Etxerat elkartearekin adostutako manifestua irakurtzen dute. Antolatzaileek deia egin diete herritarrei ekintza horretan parte hartzeko.

Aisia egitasmoetako izen ematea zabalik dago

Gazte Kluba eta Kuadrillategi programetako saioak datorren asteko ostiralean hasiko dituzte, urriak 4. Bestalde, hiru egun lehenago, lehen entsegua aurrera eramango dute Plaza Dantzan aritzen diren herritarrek Sasoeta LH ikastetxeko gimnasioan

Txintxarri

Ttakun Kultur Elkartek martxan jarriko ditu Lasarte-Oriako Udalarekin elkarlanean aurrera eramaten dituen aisia egitasmoetako batzuk, alor horretan ere euskararen erabilera bultzatzeko. Gazte Kluba da horietako bat, LH3 eta LH6 ikasmaita arteko haurrentzat bideratutakoa. Izena emateko azken eguna urriaren 2a da, asteazkena, eta bi egun geroago aurrera eramango dute aurreneko saioa, 17:30etik 19:30era. Ostiralero elkartuko dira partaideak ordu tarte horretan. Programa doakoa da eta ikasturtean zehar irteera berezi batzuk ere egingo dituzte.

Kuadrillategi, berriz, DBH 1 eta DBH 4 ikasmaita arteko gaztetxoentzat zuzenduta dago. Izena emateko azken eguna hilaren 30a da, astelehena. Parte hartzen dutenak ere ostiraletan elkartuko dira, bi orduz. Gazte Kluba egitasmoek bezala, kur-



Muxikoak, Okendo plazan. TXINTXARRI

tsoan zehar ekimen berezi zentzuzkoak egingo dituzte.

Bestalde, Plaza Dantza egitasmo kideak datorren asteko asteartean (urriak 1) hasiko dira entseatzen. Astearteetan elkartuko dira Sasoeta LH ikastetxeko gimnasioan, 20:00etatik 21:30era.

Gazte Kluba eta KTG

Gazte Kluban edo Kuadrillategin (KTG) izena emateko, eskaneatu QR kode hauek:



Gazte Kluba: azken eguna, urriak 2



Kuadrillategi: azken eguna, hilak 30

Kultur etxeko ikastaroetan izena emateko epea zabalduko dute

Bederatzi ikastaroren eskaintza egin du udalak. Horietan aritzeko, hilaren 30etik urriaren 4ra egin behar da inskripzioa

Txintxarri

Kultura sailak hainbat ikastaroren eskaintza egin die herritarrei. Horiek guztiak 18 urteko gorakoei zuzenduta daude, eta parte hartu ahal izateko, aurrez izena ematea ezinbestekoa da.

Hilaren 30ean, astelehenarekin, zabalduko da inskripzioak egiteko epea, eta urriaren 4ra arte luzatuko da. Interesdunak kultur etxera joan beharko dute tramite hori egitera, honako ordutegian: 09:00etatik 13:00etara, eta 17:00etatik 20:00etara.

Izen emate epea amaituta, lekuen baieztapena posta elektronikoki bidez egingo dute ardurdunak, urriaren 9an. Ikastaroak, berriz, urriaren 14 eta 18 bitartean hasiko dira.

Hiru ekimen eskaini dituzte astelehenetarako. Memoria tailerra izango da 11:00etatik 12:30era, eta 125 euroren truke. Yoga, aldiz, 19:00etatik 20:30era aurrera eramango dute, hori ere 125 euro ordainduta. Irakurketa klubak, berriz, 58 euroko kostua du, eta 10:00etatik 14:00etara izango da.

Dantza latinoen eskaintza luzatu dute asteartetarako. 19:00etatik 20:30era izango dira eskolak eta prezioa, 70 eurokoa da. Horretaz gain, joskintzan aritzeko parada ere izango da. 10:00etatik 12:00etara, 172 euro ordainduta.

Asteazkenetarako, berriz, meditatzioren aukera dute herritarrek. 19:15etik 20:45era izango dira saioak, 129 euroren truke. Joskintzan aritzeko aukera ere izango da egun horretan; 10:00etatik 12:00etara, 172 euroren truke.

Pintura izango da ostegunetako aukeretako bat, 18:00etatik 20:00etara eta 167 euro ordainduta. Sabel dantza ere egun horretan aurrera eramango dute, 19:20etik 20:50era 94 euroren truke.

Ostiraletan, aldiz, ilara dantza aukera dute lasarteoriatarrek. 19:00etatik 20:30era izango da horien ordutegia, eta prezioa 68 eurokoa.

EDUKI BABESTUA



Zinkunegik (eskuinean) Salsamendiri eman dio zuzendaritzaren lekukoa. TXINTXARRI

Andoni Salsamendi izango da Munteri-AEK euskaltegiako zuzendari berria

Telefonoa jo eta jo ari da Munteri-AEK euskaltegiak Geltoki kaleko 17. zenbakian duen bulegoan, ikasturte berria hastear den seinale. Bertan ari dira lanean azken bost urteetan zuzendari izan den Garazi Zinkunegi eta bere testigua hartu berri duen Andoni Salsamendi. "Iruditu zaigu aldatzeko ueña iritsi dela, euskaltegiaren freskotasuna eta perspektiba berriak sartzeko momentua, betiere orain arteko lan ildoarekin buru-belarri jarraituta". Alegia, aldaketa honekin AEK-koek ez dutela ezer hausteko asmorik, baizik eta egindakoan urrats berriak egin, beste legez batekin. Ilusioz eta arduraz hartu du kargua herritarrek, ekin berri duen bidean laguntza izango duenaren lasaitasunarekin: "Ez da bakarrik egongo, ahal dugun guztian lagunduko diogu", azpimarratu du Zinkunegik.

Euskaltegiako eskolak urriaren 1ean hasiko dira, asteartearrekin. Zinkunegik eta Salsamendik ohartarazi dute izena emateko epea itxita dagoela baina euskara ikasteko interesa dutenak badutela aukera horretarako, baldin eta honezkero sortuta dagoen talderen batean tokirik badago. Horrela den ala ez jakiteko euskaltegiara bertara joan daitezke interesdunak

bulegoko ohiko ordutegian edota 607 62 52 33 telefono zenbakira deitu.

Oinarrizko ikasmaita

Tokia badute, esate baterako, A0 eta A1 ikasmaitetan, oinarrizkoetan. Herrira etorri berriak direnei edota honezkero hemen bizi baina euskara ikasteko aukera izan ez dutenei egin diete izena emateko deialdia. Aurten, gainera, dirulaguntza lerro berri bat prestatu du Eusko Jaurlaritzak ikasmaita horietarako: matrikula egiten dutenek 198 euro besterik ez dituzte ordaindu beharko, eta, horretarako baldintzak betetz gero, oso-osorik jasoko dute bueltan kurtsoa amaitzean.

Bestalde, pozik daude Zinkunegi eta Salsamendi, 16 eta 18 urte arteko ikasle talde bat C1 maila ikastera animatu delako aurten. Jakinarazi dute irakasle talde berberak ekingo diela eskolei baina posible dela, ikasturteak aurrera egin ahala, pertsona berrien bat lanean hasateko euren. "Ahal dela, lasarteoriatarra izatea nahi dugu".

AO ETA A1 MAILETAN IZENA EMATEN DUTENEK 198 EURO SOILIK ORDAINDU BEHAR DITUZTE



Ostadar Ipar Martxako kideak Pazko Astean Asturiasera egin zuten bidaia. OSTADAR IPAR MARTXA

Ostadar Ipar Martxa, hamar urteko bultzada

Ostadar Ipar Martxa taldeak 10 urte bete ditu. Hamaika irteera, bidai eta ekimenetan parte hartu dute urte horietan guztietan. Taldeko sustatzaile diren Rosa Ormazabal eta Alex Ramos kideekin bilgu gara kirolaz, taldeaz eta urteurrenaz gehiago jakiteko

Nerea Eizagirre

2014an Rosa Ormazabal eta Begoña Morianak ipar martxako instruktore ikastaroa egin eta Lasarte-Orian talde bat sortu eta kirol disziplina hori irakasteko asmoa agertu zuten. Ostadar SKTra hurbildu ziren taldea nola sortu ahal zuten galdetzeko eta geroztik euren babesarekin pausoz pauso hamar urteko bidea egin dute. Urtebetera Junkal Perez eta Alex Ramosek ere atera zuten titulua eta lauek ekin zioten Lasarte-Oria makilez betetzeko lanari.

"Zoritxarrez, urte batzuetara Morianak utzi egin behar izan zuen".

Ipar martxa makilekin ibiltzearekin lotu ohi da, baina bi irakasleek azpimarratu modura, "kalera atera eta makilekin ibiltzea ez da ipar martxa. Teknika bat du, luzatu eta makila bultzatu behar duzu. Bultzadarik gabe ez dago ipar martxarik".

Lanean hasi zirenean ezezaguna zen kirolak harrera ona izan zuela jakitera eman dute. Jende

taldera batzen joan zen, "emakumeak gehienak" eta egun 134 pertsona daude. Baina saioetara guztiak ez direla agertzen azpimarratu dute: "Hogei bat biltzen gara ostegunetako saioetan. Batzuk guztietara doaz, baina beste batzuk txandaka datoz. Irteeretan ere 30 bat gara".

Ikastaro eta osteguneko teknifikazio saioez gain, irteerak eta bidaiak egiten dituzte "euren arteko sareak sortu, elkartu eta ongi pasatzeko".

Herrian txertatua

Herriko ekimenetan ere presente egoten dira. Hurrengoak, gaurko (hilak 27a), Mugikortasun eguna eta urriaren Buruntzaldeko Ibilbideen eguna izango dira. "Beti gaude prest edozer gauza egiteko", onartu dute Ipar Martxako kideek.

Horregatik, elkartasun ekimenean ere bat egiten dute, hala nola, Aspanogiren martxa. Eta euren harritxoak jartzen dute besteen onizatea bermatzeko. Lau hilabete daramatzate Aspargirekin (Gipuzkoako Parkinson elkarte) lanean, ikastaro bat egin eta astero biltzen dira. "Proiektu polita eta handia da. Bakoitza egoera ezberdin batean dago". Iaz Retinosis Gipuzkoa Begasare elkartearekin eta proiektu asko ere izan dituztela jakitera eman dute, "baina ez dira aurrera atera".

Egindako lan guztia gustura egiten duela adierazi du Ormazabalek. "Askok ematen dut, baina horrek ere asko ematen dit niri", nabarmendu du.

Ateak irekiak

Taldeko kideek azpimarratu dutenez edozein pertsonak egin dezake ipar martxa eta ateak zabalik dituztela jakitera eman dute. Ostegunetan 19:00etatik 20:30era saioak egiten dituzte, aire zabalean; eguraldi txarra eginez gero, Oriarte Landaberriko patioan biltzen dira.

Horrez gain, hasiberrientzako ikastaroak ere egiten dituzte. Eta oraindik data zehazteke, 2025ean urtarrilean eta otsailean egingo dituztela aurreratu dute.

Motzean

Non sortu zen ipar martxa?

1930ean Finlandian sortu zen iraupen eskiko kirolarietan udan entrenatu ahal izateko. Baina gaur egun darabilgun teknika Marko Kantaneva-k sustatu zuen, 1997an.

Zein onura ditu?

Onura fisiko eta psikologiko asko ditu. Postura mantentzen laguntzen du eta horrek autoestimazio ere isla du. Hankak indartu eta oreka lantzen dituzte praktikatzean, baina momentuan egoten ere erakusten du. Ipar martxa egitean zure mugimenduak modu kontzientean egin behar dituzu eta horretarako, hemen eta orain egon behar duzu.

Zein mota daude?

Modalitate ezberdinak daude, baina denak dira antzekoak. AEBetan Fittreka da nagusi. Europa aldean INWA eta Kantanevaren teknika daude. Guk ALFA-247 egiten dugu, teknikoagoa dela esan daiteke.

Adin guztietarako festa eta bideoklipa

10. urteurrena dela eta, Ostadar Ipar Martxako kideek hilaren 28an egun osoko egitaraua (ikus ondoan) prestatu dute. "10a zenbaki potoloa da zerbait egiteko eta jai eguna egitera animatu gara", aipatu dute.

Adin guztietarako ekimenek osatzen dute ospakizun eguna eta guztia auzolanean egin dutela aipatu dute: "Jendeari eskatu diogu eta guztiak esaterakoan prest agertu dira. Egiten duzuna jasotzen duzu eta pozarren gaude izan dugun erantzunarekin".

Abestia eta bideoklipa

Egitarauaren barruan, taldeko sare sozialatan ikusgarri dagoen *Dragonera* kantua estreinakoz joko du Denboraz kanpo taldeak. Ormazabalen seme Beñat taldeko kide da: "Beti sortzen ditu abestiak familiako ekitaldietarako eta guretzat ere bat egitea proposatu nion".

Dragonera makilak eusteko erabiltzen den uhal edo eskularrua da eta amak aipatutakoa oinarri sortu ditu doinu eta hizkia desadostasun batzuk tarteko:

"Singularrean dago eta berez bi makil dira eta beraz dragonerak izan beharko luke, baina azkenan poetikoki singularrean hobe geratzen dela eta horrela geratu da. Cristina Borrás Gironako ipar martxako taldeko arduradunari ere bidali diogu bere oniritzia emateko".

Gerora bideokliparen ideia etorri zela aipatu du Ormazabalek: "Lehenik doinuarekin argazki montaje bat egitea genuen pentsatua, baina taldeari koroak grabatzeko eskatu eta egun horretan irudi grabaketa txiki batzuk egin zituzten. Horiek oso politak zirela eta bideoklipa egitea proposatu ziguten. Taldeari esan eta guztiak baiezkoa eman zuten".



Ostadar Ipar Martxako kideek udalaren babesa jaso dute. TXINTXARRI

Urteurrenaren egunean "eguraldia ona egitea besterik ez da falta". Horrela ez bada ere, ziur giro ederra sortuko dutela eta horretarako herri guztiari urteurrenaren ekimenetan parte hartzeko gonbita luzatu diote Ostadar Ipar Martxako kideek. Era berean, udalari eskerrak eman nahi dizkiote emandako laguntzarengatik.

Egitaraua

- 09:00etan**, ibilaldia Okendo plazatik abiatuta.
 - 11:00etan**, hamaiketakoa.
 - 13:00etan**, aureskua Erketz EDTren eskutik, Okendo plazan.
 - 13:15ean**, trikipoteoa.
 - 14:15ean**, bazkaria. Bertaratu nahi dutenek tiketak erosi beharko dituzte; Ostadar SKTn edo Buenetxea edo Arkupe tabernetan.
 - 15:30ean**, Earra bertso eskolako kideen emanaldia.
 - 16:00etan**, Intza Alkain eta Bea Egizabalen umore saioa.
 - 17:00etan**, Porrotx eta Bizipozaren Kantukolore.
 - 18:00etan**, ipar martxa eta kirol egokitua dantzan.
 - 18:30ean**, Elektropottote taldearen emanaldia.
 - 19:30ean**, Denboraz kanpo taldearen kontzertua.
 - 20:00etan**, Auskalo taldearekin erromeria.
- Arratsaldeko ekimenak Oriarte Landaberri eraikinean izango dira*

Maialen Chourraut, urretik urrera irailean

Hilaren hasieran, Espainiako txapelketan K1 mailako zein kayak krosetako txapeldun izan da herritarra. Atletico San Sebastian taldearekin ere eskuratu du saria. Hilaren 20an, Munduko Kopako proban urrezko domina eskuratu du Lasarte-Oriako palistak

Txintxarri

Parisko Olinpiar Jokoetan ezin izan zen, baina irailean Maialen Chourraut Yurramendi herritarra podiumetik podiumera doa. Hitzordu garrantzitsuei egin die aurre Lasarte-Oriako palistak eta garaile izan da guztietan. Hilaren hasieran banaka zein taldekako K1 eta kayak kros modalitateko Espainiako txapelketetan lehiatu eta podiumeko gorenera igo zen; hilaren 20an, Munduko Kopako finalean urrea eskuratu zuen. Txapelketa guztiak ongi ezagutzen duen La Seu D'Urgelleko (Lerida, Katalunia) kanalean jokatu ziren.

Nazioarteko lehiari, K1 mailako saillkapena lasai gainditu ostean, bigarren marka onenarekin iritsi zen herriko palista finalera; finalerdian Andorrako Monica Doriak bakarrik gainditu zuen.

Azken aurreko postuan parte hartu zuen Chourrautek azken saioan eta zirrarragarria izan zen; akatsik ez zuen egin eta 100.30ko markarekin lehen postuan jarri zen. Doriaren zain geratu zen lasarteoriatarra. Andorrarrak ezin izan zuen Chourrauten denbora ondu, ordea; mantsoagoa



Maialen Chourraut, Munduko kopako finaleko jaisiera amaitzean. MARC ETXANIZ PAL

izan zen eta akats bat ere egin zuen. Ondorioz, herritarrak eskuratu zuen garaipena.

Urrea jantzi arren, Chourrautek ez du Munduko Kopa etxera eramaterik izan. Sari nagusia Ricarda Funk alemaniarrek jaso du.

Txapeldun hirukoitza

Espainiako txapelketak, berriz, hilaren 6tik 8ra burutu ziren. Aipatu lehen egunean, K1 mailako taldeko probak jokatu ziren. Chourrautek Atletico San Sebastian elkarte taldekide Olatz Arregui eta Leire Goñirekin batera egin zuen jaisiera. Nahiz eta bi puntu-

ko zigorra jaso denborarik onena egin eta garaikurra eraman zuten.

Ordu gutxitara bakarrik proba lehiatzeko atera zen uretara lasarteoriatarra. Nahiz eta akatsa egin eta zigorra jaso, onena izan zen Chourraut eta hurrengo eguneko finalerdirako txartela eskuratu zuen. Finalerdian zein finalean ez zuen hutsik egin, ordea; nagusi izan zen.

Kayak kros modalitatean ere Atletico San Sebastianeko palistak Olatz Arregui eta Leire Goñi taldekideekin osatu zuen podiuma. Chourraut lehen mailara igo zen, Goñi bigarren eta Arregui hirugarren.

Azken orduak Lasarte-Oriako II. Mendi Lasterketan izena emateko

Dorsal banaketa hilaren 28an eta egunean bertan, proba hasi baino lehen egingo da Mercero gunean

Txintxarri

Atzerako kontaketa kontua hasi da. Bi egun geratzen dira Lasarte-Oriako II. Mendi Lasterketa. Juanlu oroitzuz probak Buruntza mendiko bideak korrikalariz betetzeko. Eta izen emate epea ixteko ere orduak geratzen dira.

Hilaren 27ko gauerdia arte LOTMEren webgunean inskripzioa egiteko aukera izango dute

parte hartu duten korrikalariek. Hala ere, dorsal banaketa egunean (hilaren 28an) ere, inskripzioak egiterik izango dela aipatu zuen LOTMEko kide Javi Olazagoitiak probaren aurkezpenan.

Dorsalak arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara eta probaren egunean, 08:00etatik 09:30era banatuko dira Antonio Mercero gunean.

Collaradara irteera

Bestalde, mendi elkarteak urriaren 19 eta 20ko asteburuan Aragoiko Pirinioetara irteera antolatuta du. Zehazki Canfrancetik aterata Collarada tontorreraino bidea egingo dute Ip iboitik pasa. Gailurra egin ostean, Villanua jaisiko dira. Guztira 19,3 kilometroko eta 1.760 metroko desnibel positiboa du ibilbideak.

LOTMEko bazkideei eta bazkide ez direnei irekitako jarduera mugatua da; 55 toki. Izen ematea urriaren 11 arte edo leku amaitu arte egin ahalko da mendi elkarrearen webgunean. Irteerako xehetasun eta azalpen guztiak ere bertan daude eskuragarri.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO MAILA

Ostadar SKT - Hernani CD B

Larunbata. 15:30. Michelin kirol gunean.

GORENGO MAILA

Ostadar SKT - Touring CD B

Igandea. 13:30. Michelin kirol gunean.

ERREGIONALEAN 1. MAILA

Urnieta KE - Ostadar SKT

Larunbata. 15:30. Urnietan.

Trintxerpe CD - Texas Lasartearra CF

Igandea. 16:00. Trintxerpe, Donostian.

OHOREZKO J. M.

Ostadar KE - Danena KE

Larunbata. 11:30. Michelin kirol gunean.

JUBENIL GORENGO

Anaitasuna CD B - Ostadar SKT B

Larunbata. 17:45. San Juan, Azkoitian.

JUBENILEN 1. MAILA

Ostadar SKT C - Arrupe Chaminade C

Larunbata. 17:30. Michelin kirol gunean.

Astigarragako Mundarro FKE B - Texas Lasartearra CF B

Larunbata. 16:00. Zarkumendegi, Astigarragan.

Texas Lasartearra CFA - Euskalduna A. SD B

Igandea. 11:25. Michelin kirol gunean.

OHOREZKO K. M.

Orioko FT - Ostadar SKT

Larunbata. 13:30. Mendibeltz, Orion.

KADETEEN 1. MAILA

Ostadar SKT B - Santo Tomas Lizeoa B

Larunbata. 09:45. Michelin kirol gunean.

Texas Lasartearra CF - Astigarragako Mundarro FKE B

Igandea. 09:45. Michelin kirol gunean.

Zumaiako FT B - Ostadar SKT C

Igandea. 11:00. Aita Mari, Zumaian.

Usurbil FT B - Ostadar SKT (neskak)

Igandea. 12:00. Harane, Usurbilen.

INFANTIL HANDI

Martutene KE - Ostadar SKT

Larunbata. 10:30. Martutene, Donostia.

INFANTIL TXIKI

Euskalduna SD - Ostadar SKT

Larunbata. 15:30. Ubitarte, Andoainan.

SASKIBALOIA

J. ERRENDIMENDUA ZILARRA

Biko Asesoria Oiarso SKT - Ostadar SKT

Larunbata. 18:00. Don Bosco, Erreterian.

K. ERRENDIMENDUA URREA

Krean Ointxe! - Ostadar SKT A

Larunbata. 12:00. Musakola kirl., Arrasaten.

K. ERRENDIMENDUA ZILARRA

Eskoriatza KE - Ostadar SKT B

Larunbata. 09:30. M. Muñoz kirol., Eskoriatzan.

PILOTA

ESKUZ BINAKA, NAGUSIAK, 3. MAILA

Alde Zaharra - Intza

Larunbata. 17:00. Egia, Donostian.

GOMAZKO PALA, NAGUSIAK, 3. MAILA

Beloki - Intza

Ostirala. 19:45. Beloki, Zumarragan.

JUDO

JUNIOR SUPER KOPA

LOKEko kideek junior mailako Valentziako Super Kopan parte hartuko dute.

Larunbata. Benimamet, Valentzian.

AUTOMOBILISMOA

DIMAKO IGOERA

Aitor Manso herritarra II. Dimako igoeran lehiatuko da.

Larunbata. 13:00. Dima, Bizkaian.

MENDIA

II. MENDI LASTERKETA

LOTMEK antolatuta Lasarte-Oriako II. Mendi Lasterketa. Juanlu oroitzuz proba jokatu da.

Igandea. Lasarte-Oria.

Beñat Telleriak, hirugarren postua Euskal Pentatloian

Lehen txandan lehiatu da herritarra; Izeta IV.ak eta Olazabalek bakarrik gainditu dute bere marka

Txintxarri

Ekainean Euskal Pentatloiko II. mailako txapela jantzi zuen Beñat Telleria Telleria IV herritarrak. Orain I. mailako podiumera igo da, hirugarren izan da. Hilaren 21ean, Azpeitiko zezen plazan jokatu zen zazpigarren edizioako finala. Lasarteoriatarrek lehen txandan parte hartu zuen Aritz Irazabal eta Xabier Zaldia Gurrutxazpi-ren aurka. Bigarren txandan Andoni Iruretagoiena Izeta IV, Xabat Olaizola eta Ioritz Gisasola Zelaia IV aritu ziren.

100 kiloko harriari hamar jasoaldi, 400 kiloko harriarekin plaza bat egin, bi enbor moztu, 50 kiloko txingekin hiru plaza egin eta kilometro eta erdi korrika. Horiek izan ziren egin beharreko lanak eta Telleria bere txandan azkarrena



Telleria, gizon probako saioa egiten.

MAIDER GINEA ORMAETXEA

izan zen; guztira 33.47 behar izan zituen.

Faborito zen Izeta IV.ak (30.53) lortu zuen garaipena bigarren txandan eta laugarrenez eraman zuen txapela. Olaizolak (31.48) ere lortu zuen Telleriaren marka ontzea eta ondorioz, hirugarren postua eskuratu zuen herritarrak.

Herriko igerilariak, ederki itsas zeharkaldietan

Gipuzkoako Ligako Ur Irekietako Ligako hainbat proba izan dira abuztuan eta irailean. Herriko ordezkariak lehia izan dira eta batzuk euren mailetako lehen postuetan izan dira. Asturiasen eta Landetan (Frantzia) ere parte hartu dute igerialdi ezberdinetan

Txintxarri

Itsas Zeharkaldien denboraldia amaitu da Gipuzkoan. Abuztuan eta irailean zehar ur irekietako hainbat proba jokatu dira eta herriko igerilariak ez dute huts egin. Buruntzaldea IKTko kideak gainera Asturiasen eta Vieux-Boucau-les-Bains (Frantzia) herriko Port d'Albret lakuan izan dira lehia. Nahiz eta batzuetan itsaso zakarrari aurre egin behar, ederki jardun ziren eta euren mailetako lehen postuetan sailkatu ziren.

Abuztuaren 4an, Txingudiko badiako itsas zeharkaldia izan zen, Hondarribian. Herriarren artean Joseba Egia (34.45), Juan Vicente Martin (34.49) eta Buruntzaldea IKTko Laura Igea (42.47) izan ziren euren mailako lehen postuetan. Egia eta Martin bigarren izan ziren eta Igea laugarren.

Hamaika egun geroago, Donostiako Aste Nagusiko egitarauaren barruan Paseo Berriko



Paseo Berriko igerialdian parte hartu zuten Buruntzaldea IKTko igerilari batzuk. BURUNTZALDEA IKT

54. igerialdia jokatu zen eta Egia bera izan zen herritarren artean azkarrena (44.10) eta Juan Vicente Martinek berriro ere bere mailako bigarren postua eskuratu zuen (45.41). Buruntzaldea

IKTko kideei dagokionez, Itsaso Tolosa, Miren Sarobe eta June Lopez izan ziren lehenak proba amaitzen; batera iritsi ziren helmugara eta 51.12 marka egin zuten.

Irlako 25. igeriketa zeharkaldia astebetara izan zen ea bertan Buruntzaldea IKTko kideak izan ziren herriko ordezkari. June Lopez izan zen helmugaratzen lehena, emakumezkoen artean 7. sailkatuz eta 52.32 denbora eginez; minutu eskasera Itsaso Tolosa iritsi zen (53.38) eta jarrera Igor Amantegi (56.07). Hurrengo hiruak berriz, bakoitza minutu bateko tartean iritsi ziren gutxi gorabehera. Pablo Muñozek 01.03.43 denbora egin zuen, Laura Igeak 01.04.05 behar izan zituen 3.000 metroak osatzeko eta Manu Santosek, berriz, 01.05.41.

Iraileko hitzorduak 7an hasi ziren 80. Kontxa Badiako Igerialdiarekin. Herriarren artean, Aimar Sukunza izan zen lehena helmugara iristen, 31.43; sailkapen orokorrean zazpigarren izan zen. Gutxira iritsi zen Buruntzaldea IKTko Mario Amantegi, 31.54 denbora lortuta. Juan Vicente Martinek 22:40 markarekin bere mailako hirugarren postua eskuratu zuen.

Azkenik, Mutriku eta Deba arteko Flysh Beltza zeharkaldia egin zen hilaren 22an. Proba ekainean jokatu behar bazen ere, eguraldiak eta itsasoaren egoerak ez zuten ahalbidetu eta orain lehiatu da. Lasarte-Oriako ordezkarien artean bakarrak parte hartu zuten igerialdian, Aimar Sukunzak. 40.00 marka egin eta sailkapen orokorreko zazpigarren eta senior mailako

laugarren postuan amaitu zuen proba.

Bestelako probak

Gipuzkoatik kanpo ere igerian izan dira Buruntzaldea IKTko kideak eta bertan ere emaitza ederrak lortu zituzten.

Abuztuaren 3 eta 4ko asteburuan taldekide Adrian Garciak bi probari egin zien aurrea Navian, Asturiasen. Ur Irekietako Asturiasko Kopa ospatu zen eta Adrianek 3 x 2.500 m. erreleboetako proban hartu zuen parte bi lagunekin. 7.500 metroak osatzeko eta hiruen artean 02.17.13 marka egin zuten eta taldeak 25. postua lortu zuen. Horrez gain, Navia ibaiaren jaitsieran ere egin zuten igeri. Bost kilometroko distantzia 01.04.45 denboran osatu zuen Garciak eta bere kategorian 18. izan zen.

Bestalde, hil horretako 18an, Igor eta Mario Amantegi aita-semeek ohitura bilakatu duten Vieux-Boucau-les-Bains (Frantzia) herriko Port d'Albret lakuko proban parte hartu zuten. Hitzordu honetan Mariok saria eskuratu zuen; hirugarren postuan iritsi zen helmugara.

Buruntzaldea IKTko ardudunen hitzetan, euren kideek ur irekietako denboraldiari amaiera eman diote, urtean zein uretatik kanpo esperientzia ederrak bizi izanaren pozarekin: "Euren buruari aurre egiteaz gain, loturak sendotu eta oroitzen politak sortu dituzte".

Jubenilen Gorengoak eta Intzako pilotariak, puntuak

Herriko beste kirol talderik ez du garaipena erdietsi denboraldiko bigarren jardunaldian

Txintxarri

Hilaren hirugarren asteburuan, Michelin kirol gunean lortu ziren herriko kirol taldeen garaipen bakarrak. Ostadarreko Jubenil Gorenak Bergara KE B 3-2 gainditu zuen zelaian eta ia ordu berean, pilotalekuan, Intza KEko Nagusien 3. mailako bikoteak Tolosa 2 irabazi zuen.

Partida borrokatua eta zirraragarria jokatu zuen Ostadar SKTko taldeak hilaren 21ean. Indartsu atera ziren bi taldeak. Baina zazpigarren minutuan etxeko taldeak jaso zuen fruitua.



Pilotariak, jokoa. TXINTXARRI

Urdin-beltzek aldea handitzeko ahaleginak egin arren, Bergarak hogeigarrenean berdinketa lortu zuen. Ostadar ez zen uzkur-tuko, ordea, eta lehen zatia amaitzear bigarren gola egin zuen. Atsedendialdiaren ostean,

jokoak berdin jarraitu zuen. Bi taldeak garaipenaren bila zeuden eta Bergarak binakakoa egin zuen. Etxekoak ez ziren puntu bakarrarekin konformatuko eta lehen zatiaren antzera, azken momentuan garaipena erdietsi zuen hirugarren gola eginez.

Bitartean pilotalekuan Intza KEko eskuz binakako bikoteak Ezker Hormako bigarren jardunaldia jokatu zuen. Tolosa 2 izan zuen aurrez aurre Nagusien 3. mailako bikoteak. Hasieratik markagailuan aurre hartu zuten herritarrek eta zazpi-zortzi tantoko aldea mantendu zuten. Baina estutasun batzuk izan zituzten neurketa amaieran, aurkariak 20-19 gerturatu zirenean. Azken tantoetan, norgehiagoka etxean geratzeko borroka ederra egin zuten Intzako kideek, baita lortu ere; 22-19 gailendu ziren.



TXAPELKETAKO ANTOLATZAILAK


Pronostikoetan asmatzeko saria du

Hipodromoko udako denboraldia amaituta, Zaldi Lasterketak Zaleentzat I. Pronostiko Txapelketako sariak banatu zituzten hilaren 21ean, Hipodromoan. Antolatzaileek nabarmendu dutenez, azken jardunaldira arte iraun duen lehia izan da. Antxon Kortak (City) jaso du lehen saria; bigarren postuan Cristian Arroyo (Arroyo) herritarrentzat izan da eta Imanol Arrutik (Almagro) eta Jon Galdonak (La Voz del Hipodromo) hirugarren eta laugarren postuetan amaitu dute txapelketa, hurrenez hurren.

KOMIKIA



ZORION AGURRAK



Oinatz
Zorionak Oinatz zure gurasoen eta aiton-amonen partetik. Muxu handi bat!



Xuhar
Zorionak Xuhar zure 3. urtebetetzean! Egun zoragarria pasa dezazun, familiaren partetik, muxu ta besarkada handi bat!

Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri, jaioberri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak

Internet

· txintxarri.eus/
zorionagurrak.
· Erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzailerik ez baduzu izena eman.
· Zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

Posta elektronikoa

· Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

OSTEGUNEKO 16:00AK ARTE JASOKO DITUGU

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 27	ACHA-ORBEA
LARUNBATA, 28	URBISTONDO
IGANDEA, 29	URBISTONDO
ASTELEHENA, 30	GANDARIAS-URIBE
ASTEARTEA, 1	URBISTONDO
ASTEAZKENA, 2	DE MIGUEL
OSTEGUNA, 3	LASA

Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00

DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I.de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA 22:00-09:00

Florida Farmazia: Mañe I Flaquer plaza 6, Hernani. 943-57 64 77

'URTE OSOKO GUARDIAK'

Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK

· ERREGISTROA: 943-37 16 29
· EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
· KIROLDEGIA: 943-37 61 82
· MANUEL LEKUONA
· KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
· GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
· KIUB: 943-36 16 05
· UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
· MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDI TELEFONOAK


· OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
· DYA: 943-46 46 22
· GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
· UDALTZAINAK: 943-36 24 42
· ERTZAINZA: 943-53 88 40
· SOS DEIAK: 112

EGURALDIA LASARTE-ORIAN

Ostirala, 27



Larunbata, 28



Igandea, 29



Astelehena, 30



Asteartea, 1



Asteazkena, 2



Osteguna, 3



Jaio da!

Deitu 943-37 14 48 telefonora, bidali haurraren izen-abizenak eta jaiotze data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

SUDOKUA

		8	4		5			2
		7	9			5		
4		5	6			1		9
5			2	8				3
8				5		9	2	
	4	2		6	9	8	5	
	8			4	6	2	1	
1		6		2				5
2	5			9		3	6	

Sudoku10.net

OHARRAK

Azken tokiak

Udal Euskaltegiak jakinarazi du ikasleentzat azken tokiak geratzen direla B1, B2 eta C1 ikasmailetan.

1974ko kintoak

1974an jaiotako herritar batzuek topaketa antolatu dute urriaren 19rako, larunbatarekin, Okendo plazan, 12:00etan.

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

SALDU

Denda saltzen dut. Okendo plazan dago, Geltoki kalea 3. 135.000 euro. Ez da alokatzen. Interesa duenak dei dezala 658 08 93 80 zenbakira.

ERRENTA

Bi neska gazte gara eta pisukide baten bila gabiltza. Etxea Zabaletako auzoan dago. 200 euro dira logelaren prezioa gehi gastuak aparte. Interesatu bazaude idatzi edo deitu telefono honetara: 663 93 51 76.

GARAJEA

ALOKATU

Erdigunean garaje marra bat alokatzen dut abendutik aurrera. Arratsaldean deitu hona: 650 63 65 88.

LANA

ESKARIA

33 urteko gizona lan bila dabil. Tabernan, sukaldean, garbiketa lanak, pertsona adinduak zaintzeko edo edozein lan egiteko prest. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

Umeak zaintzeko prest nago, esperientzia handia. Harremanetarako, 695 18 41 79.

BESTELAKOAK

SALEROSKETA

Haritz egurra saltzen dugu, tximinia edota ekonomiketarako. Eskatu ostean etxera eramateko zerbitzua dugu. Harremanetarako zenbakia, 667 23 23 00.

AZOKA TXIKIA

Atal honetako iragarkiak doan dira herritarrentzat (lau astez argitaratuko dira). Profesionalentzat, aldiz, 4 asterako kontratazioak 12 € + bez izango da prezioa.

Iragarkia jarri nahi baduzu jar zaitez gurekin harremanetan

txintxarri@ttakun.eus
943-37 14 48
688 68 35 10

ZOKKETA

Maider Segurola Dorronsoro, zozketako irabazle

Ttakun Kultur elkarteak bere bazkideen artean zozketa ezberdinak egin ohi ditu hilabetero. Azkena Koñl estudioko 50 euro erosketaketa txartela izan da. Zozketan izena eman zuten bazkideen artean, Maider Segurola Dorronsoro izan da zorteko eta dagoeneko jaso du saria Karmele Salsamendiren eskutik.



Koñl estudioko Karmele Salsamendik eman zion saria zortekoari. TXINTXARRI

ESKUTITZA

Tranpa txikiak

IÑIGO OTAEGI BELDARRAIN HERRITARRA

Hamalau urte inguru genituen, eta asteburuetan Mitxelingo kirol instalazioetan egoteko ohitura, harrerako langileek argiak itzali eta mutur okerrarekin bertatik bidaltzen gintuzten arte. Ostadarreko gizonen lehen taldeak jokatzeko zuten egunetan jende asko gerturatu zen, eta klubak, otar bat zozketatzeko erabiltzen zuten aukera. Gu izaten ginen boletoak saltzen ibiltzen ginenetako batzuk, eta, normalean, 300 inguru saltzen genituen.

Taldean baginen pare bat espabilatu, eta azkar ohartu ginen. Denbora bukatzeaz zela 299 zenbakidun boletoa salduz gero, lagunei deitzen genien ondorengoak haiek eros zituzten. Izan ere, bagenekien zozketan ateratako lehen bolatxoak 3 zenbakiduna izanik, otarra irabazteko probabilitatea izugarri handitzen zela. Tranpa txikiak.

Taktika berdinarekin igo dira oholtzara Zatarain auzoan eraikiko diren Babes Ofizialeko 64 etheen zozketan. Asteartea da, baina gaur ez dugu *Championseko* mailarik. Hamaikakoan, Agustin Valdivia alkatea, Sukia Eraikuntzak-eko hiru ordezkari eta zozketa ikuskatuko duen notarioa, datorren denboralditik aurrera notaritza utzi eta *recogepelotas* moduan fitxatuko duten zurrumurruak dauden arren.

Talde horretan, lehenak 20.000 biztanle ordezkatzeko dituzten 7 milioi euroko irabaziak izan zituzten iaz, eta, azkenak, ezezagunak zaizkidan zenbait lege ardura edukiko dituela pentsatzen dut. Gaurkoan, ordea, Lasarteko, eta batez ere, inguruko herrietako, gazte askoren etxebizitza eskubidea dago joan. Diferentzia txikiak.

Inguruko herrietako gazteak diot, parte hartzaileen artean gehiengoa zirelako.

Izan ere, beste herri askotako Babes Ofizialeko Etxebizitzen zozketetan ez bezala, *ciudad dormitorio* bilakatzen ari garen honetan, herritarrok ez genuen lehentasunik. Badirudi etxeak saltzen diren bitartean, berdin diola bizilagun horiek non sozializatuko duten, nora joango diren erosketak egitera, edota herrian edukiko duten inplikazioa. Agian horrela arazo gutxiago emango dituzte. Dena dela, hau beste gai bat izango litzateke, oraindik banatzeko dituzten 32 etxeetan kontuan eduki zezaketaren arren...

Zozketara itzuliz, ez dut zalantzan jartzen gauzatzen ari ziren iruzurrak jakitun ez zirenik, baina ez dakit horrek leku hobean uzten dituen. Bertan erakutsitako inkompetentzia maila sinestezina eta kezagarria izan baita.

Azkar altxatu zuten ahotsa zalaparta hasi zenean zozketaren gidaritza zeraman eraikuntza enpresako ordezkariak, hamar minutu lehenago aldatu behar izan zuten prozedura notarioak onartzen zuzenez legekoa zela esanaz. Asistentzia ikaragarria notarioaren teiltura. Orain arte

gauzatutako zozketa guztiak justuak izan ez zirela ohartu zen momentuan agian? Horrez gain, aspaldi ikasgarri ziguten moduan, legekoa izateak ez du justizia bermatzen.

Gustatuko litzaidake udal gobernari esatea huts egin digutela. Baina ez, ez baitzen hori izan aretotik ateratakoan herritarrok partekatutako sentimendua, ezin baitzuzu huts egin harengandik ezer espero ez duzun hark. Izan ere, zoritxarrez, azaldutakoa ez da egungo udal gobernaren kudeaketa negargarriaren kasu isolatu bat izan, beste askoren arteko bat baizik.

Eskutitzak argitaratu nahi dituzten herritarrek hiru modu dituzte testua bidaltzeko: bulegora etotzea (Geltoki kalea 4, behean), txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo WhatsApp bidez, 688 68 35 10 telefonora bidaltzea. Idatzia orri hauetan publikatua izan dadin, izen-abizenak zeintzuk diren zehaztu beharko dute.

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

Publizitatea

Tel.: 943-37 14 48 (106)

WhatsApp: 646 82 44 66

publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia

Geltoki kalea 4

Tel.: 943-37 14 48 (104)

WhatsApp: 688 68 35 10

txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/93

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.300 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

Tel.: 943-37 14 48 / txintxarri@ttakun.eus

OSTIRALA 27

LASARTE-ORIA Mugikortasuna

XVIII. Mugikortasun Astearen barruko jarduerak aurrera eramango dituzte:

11:30etan, Ondo ibili paseo osasuntsua hasiko da udaletxeko arkupeetan.

16:30etik 20:30era, bizikleten bigarren eskuko azoka izango da, Okendo plazan.

17:00etan, bizikleta martxa abiatuko da Okendotik.

17:00etatik 19:30era, jolasak Okendon.

17:00etatik 19:00etara, gurpil kameren tailerra eta Scalextric lasterketak, Okendon.

18:30etan, ipar martxa saioa Ostadar SKTren eskutik, Okendon hasita.

Erdigunea, 11:00etatik aurrera.

LASARTE-ORIA Aldarrikapena

Euskal preso, iheslari eta deportatuen eskubideak aldarrikatzera aterako dira kalera. *Elizatze plazatik Okendora, 20:00etan.*

LARUNBATA 28

LASARTE-ORIA Dantza

VI. Dantzari Eguna ospatuko du Erketz EDTk, Faltzesko (Nafarroa) Makaia taldearekin batera. Ordu erdiko kalejira baten ostean egingo dute emanaldia. Ibilbidea, hau: Okendo-Kale Nagusia-Largoenea kaleko



LASARTE-ORIA Dantza

Erketz Euskal Dantza Taldeak VI. Dantzari Eguna aurrera eramango du hilaren 28an, larunbata. Faltzes (Nafarroa) udalerriko Makaia dantza taldea gonbidatuko du beraiekin aritzera. Eguraldi txarra egingo balu, emanaldia kultur etxeko auditoriora lekualdatuko dutela iragarri dute antolatzaileek. *Okendo plaza, 18:00etan.*

biribilgunea-Tajamarreko errotonda-Hipodromo etorbidea-Okendo.

Okendo plaza, 17:30etik aurrera.

Eguraldi txarra egiten badu, 18:00etako emanaldia kultur etxeko auditorioan izango da.

URRIAK 1

LASARTE-ORIA Ospakizuna

Biyak Bat zaharren egoitzako kideek Adinekoen Omenaldi Astea aurrera eramango dute, udalarekin elkarlanean. Hau da egun honetarako iragarri dituzten jarduerak:

12:00etan, bandera igoera.

16:00etan, tute eta mus txapelketa.

Biyak Bat egoitza, 12:00etatik aurrera.

URRIAK 2

LASARTE-ORIA Ospakizuna

Biyak Bat zaharren egoitzako kideek Adinekoen Omenaldi Astea aurrera eramango dute, udalarekin elkarlanean. Hau da egun honetarako iragarri dituzten jarduerak:

16:00etan, toka eta bote txapelketa Biyak Bat zaharren egoitzan.

19:00etan, Los Gavilanes mariatxi taldeak musika emanaldia eskainiko du Manuel Lekuona Kultur Etxean.

Herriko hainbat lekutan, 16:00etatik aurrera.

URRIAK 3

LASARTE-ORIA Ospakizuna

antolatzaileek aurreratu dutenez, Mikel Zinkunegi arduratuko da saioa bideratzeaz.

Horren aurretik, gainera, ordu erdi lehenago, elkarretaratze bat deitu du aipatu dinamika; Askatasunaren parke ondoko etxebitzen azpian margotuta dagoen Palestinako bandera duen horma inguruan aurrera eramango dute hori. Ekitaldi horretan zehaztuko dute, baina, aurreratu dute urriaren 7rako manifestazioa deituko dutela Lasarte-Orian.

Biyak Bat zaharren egoitzako kideek Adinekoen Omenaldi Astea aurrera eramango dute, udalarekin elkarlanean. Hau da egun honetarako iragarri dituzten jarduerak:

16:00etatik aurrera, bingo txapelketa.

20:00etan, sari banaketa.

Biyak Bat egoitza, 16:00etatik aurrera.

URRIAK 4

LASARTE-ORIA Ospakizuna

Biyak Bat zaharren egoitzako kideek Adinekoen Omenaldi Astea aurrera eramango dute, udalarekin elkarlanean. Hau da egun honetarako iragarri dituzten jarduerak:

11:00etan, Ondo ibili Okendo plazatik abiatuta.

12:00etan, hamaiketako Ondo ibilin parte hartu dutenentzat

Mercero aretoan.

17:00etan, bideo foruma Biyak Bat egoitzan.

Herriko zenbait lekutan, 11:00etatik aurrera.

URRIAK 5

LASARTE-ORIA Ospakizuna

Biyak Bat zaharren egoitzako kideek Adinekoen Omenaldi Astea aurrera eramango dute, udalarekin elkarlanean. Hau da egun honetarako iragarri dituzten jarduerak:

09:30etan, Ibilaldi neurtua.

Okendo plaza, 09:30etik aurrera.

URRIAK 6

LASARTE-ORIA Ospakizuna

Biyak Bat zaharren egoitzako kideek Adinekoen Omenaldi Astea aurrera eramango dute, udalarekin elkarlanean. Hau da egun honetarako iragarri dituzten jarduerak:

12:00etan, meza San Pedro elizan.

14:00etan, bazkaria Michelingo kirol guneko tenis pistan. Ondoren, dantzaldia Trio Galea taldearen eskutik.

Herriko zenbait lekutan, 12:00etatik aurrera.

URRIAK 7

LASARTE-ORIA Ospakizuna

Biyak Bat zaharren egoitzako kideek Adinekoen Omenaldi Astea aurrera eramango dute, udalarekin elkarlanean. Hau da egun honetarako iragarri dituzten jarduerak:

10:00etan, gimnastika erakustaldia Maialen Chourraut kiroldegian.

17:30etan, musika emanaldia Biyak Bat egoitzan.

Herriko zenbait lekutan, 10:00etatik aurrera.

URRIAK 8

LASARTE-ORIA Ospakizuna

Biyak Bat zaharren egoitzako kideek Adinekoen Omenaldi Astea aurrera eramango dute, udalarekin elkarlanean. Hau da egun honetarako iragarri dituzten jarduerak:

10:040etan, kalejira Biyak Bat egoitzatik Brigitarren komentura.

11:00etan, meza Brigitarren komentuan.

12:00etan, opariak banatuko dizkiete urrezko ezteiak betetzen dituzten egoitzako bazkideei.

14:30etan, urrezko ezteiak betetzen dituzten bazkideen bazkaria, Herriko Etxea jatetxean.

16:00etan, dantzaldia DJ Nikoren eskutik, Biyak Bat egoitzan.

Herriko zenbait lekutan, 11:00etatik aurrera.

Aurkezpena eta mobilizazioa, elkartasun keinu gisa

Lasarte-Oria Palestinaren alde herri dinamika deituta, liburu aurkezpena eta elkarretaratzea iragarri dituzte

Txintxarri

Urriaren 7an urtebete beteko da Israelek Gazaren aurkako erasoaldia hasi zuenetik, eta data hori aitzakia hartuta, urriaren 1ean *Ehun urteko gerra Palestinaren aurka, kolonialis-*

moa eta erresistentzia 1917-2017 liburuaren aurkezpena iragarri du Lasarte-Oria Palestinaren alde herri dinamika. Inaki Alegriak aurkeztuko du Rashid Khalidi idazlearen liburua, Mercero aretoan, 19:00etan, eta



Artiboko irudi honetan, herritarrek Palestinaren aldeko mobilizazio batean. TXINTXARRI

KOMERTZIO TXIKI HERRI HANDI

LASARTE-ORIA



BARNE-DISEINUA

 **SUGATE**
SUKALDEAK ETA BARNE ERABERRITZEAK

- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ORDENADORE BIDEZKO DISEINUA
 - AURREKONTUAK KONPROMISORIK GABE
- HORMA-ARMAIRUAK
- MARKA GUZTIETAKO ETXETRESNA ELEKTRIKOAK

Pintore kalea 5
Lasarte-Oria
Tel: 943-361471
www.sugatecocinas.com



ELEKTRIZITATEA

**ARREGUI**

- Material elektrikoa
 - Argiak
- Etxetresna elektrikoak
 - TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39, LASARTE-ORIA
Tel: 943-36 10 80 - Tel/Faxa: 943-37 25 21
600 85 75 86 www.electricidadarregui.com
tienda.electricidadarregui.com

GRE MI OAK



IGELTSERITZA

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra



- BARRUKO BERRIKUNTZAK
- TEILATU ETA FATXADAK ISOLATZAILEAREKIN VIPEQ F08 ETA S.A.T.E. SISTEMA
- BAINUONTZIAREN ORDEZKAPENA EGUN BATEAN
- GREMIOEN KOORDINAKETA

Tel. 693 05 93 92 - 943-56 66 40
uraitz@uraitz.com - www.uraitz.com
Hipodromo etorbidea, 10 LASARTE-ORIA



KRISTALDEGIA ETA LEIHOAK

 **ANORGA TXIKI S.L.**
KRISTALDEGIA

- Komertzial instalazioak
 - Beira bikoitza
 - Segurtasun beirak
- Dutxa-itxiturak eta irristailuak
 - Ispiluak
 - Barandak
- Kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA
943-37 17 33 • 610 45 93 45
www.cristaleriaanorgatxiki.com

32. URTEURRENA
 **ISU**

PVC eta ALUMINIOZKO LEIHOAK

Pertsianak, motorizazioak,
barandak, toldoak, armairuak,
eltxo sareak eta gehiago...

☎ 943-36 64 95
ventanas_isu@hotmail.com

Kale Nagusia, 46 behea.

LASARTE-ORIA

Tailerra: Pol. Ugaldea 21, 6.lokala
USURBIL



ZURE NEGOZIOA IRAGARRI NAHI DUZU HEMEN?
PUBLIZITATEA@TTAKUN.EUS | 646 82 44 66